

MOBILIZAZIOA

POBREZIAREN AURREAN BAT EGINDA, GORROTOAREN AURKA TINKO!
¡UNIDAS ANTE LA POBREZA, FIRMES CONTRA EL ODIO!

Pobrezia Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, funtsezkoa da gogoratzea munduko biztanleriaren % 1 aberatsenak aberastasun handiagoa duela biztanle guztien % 95ek baino eta 713 milioi pertsona muturreko pobrezian daudela. Nafarroan, herritarren % 17,2 pobrezia arriskuan edota gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan bizi dira.

Zenbaki horiek ez dira estatistika hutsak; haien atzean pertsonen bizitzak eta istorioak daude eta, maiz, borrokan ibili behar dute gorrotoarekin, beldurrarekin edota gizartearen zati batengandik jasotzen duten arbuioarekin. Egoera horri aporofobia gehitu behar zaio, egunero horri aurre egin behar diotelako.

Gaur, gizarte erakundeok salatu nahi dugu pertsona zaurgarrienen kontrako gorroto-diskurtsoen gorakada, bai eta horrelako diskurtsoek haien bizitzetan dituzten ondorioak ere.

Izan ere, gorroto-diskurtsoak ez dira hitz hutsak, baizik eta talde jakin batzuen bazterketa eragin dezakete eta eragin ere talde horiek deshumanizatzea eta indarkeria erabiltzea.

Sare sozialen erabilerak eraginik, horrelako mezuak azkar hedatu dira eta, horren ondorioz, gero eta jende gehiagorengana iristen dira. Jende asko eroso dago plataforma horiek eskainitako anonimotasunarekin, horrek gorrotoa eta bazterkeria adierazteko parada ematen dielako beraiengan inolako ondorioz jaso gabe.

Polarizazio politikoak eraginik, gainera, talde jakin batzuek gorrotoa erabiltzen dute jendea haien alde mobilizatzeke, elkarrizketa zailtzen duen liskar giroa sortuta.

Era berean, krisi globalek —izan ekonomikoek, osasun arlokoek edo klimatikoek— eraginik, gorroto-diskurtsoak gutxiengoaren aurka bideratzen dira eta arazo konplexuen errudun izatea leporatzen zaie bidegabeki. Azkenik, informazio faltsua edo engainagarria nabarmen handitu izanak desinformazioa ekarri eta estereotipoak sendotu ditu.

Gorroto-diskurtsoek gizartearen zati baten mesfidantza eragin, gizarte kohesioa hautsi eta erradikalizazioa hauspotzen dute, eta indarkeria eta deshumanizazio egoerak erakar ditzakete.

Hori dela eta, tinko jokatu behar dugu gizarte gisa gorrotoaren aurka. Horrelako diskurtsoak zalantzan jarri eta eraitsi behar ditugu, batu egingen gaituen hizkuntza bat sustatuz, zatiketarik eragin gabe. Horrenbestez, berretsi nahi dugu gorrotorik eta indarkeriarik gabeko etorkizuna eraiki nahi dugula, denok gure gizartea errespetuz eta duintasunez eraldatu ahal izan dezagun eta pertsona guztiak lekua izan dezaten.

Pertsona bakoitzak errespetuz tratatzea merezi du, alde batera utzita haren jatorria, egoera soziala, sinesmenak, sexu-joera edo generoa.

Funtsezkoa da gizartearen eskaria eta ekintza politikoa uztartzea. Garrantzitsua da pobrezia helburu nagusitzat hartuko dituzten politika publikoak izatea; hau da, pobrezia ezabatzea ez dadila bakarrik izan gainerako alorren ondorioa. Funtsezkoa da, halaber, Nafarroako Parlamentuak 2021ean sinatutako Pobreziaren eta Desberdinkeraren aurkako Ituna garatzea pobrezia eta gizarte eskusioari aurre egiteko.

Batu gaituzten pobrezia eta joko dezagun tinko gorrotoaren kontra. Denok elkarrekin mundu bat sor dezakegu, bertan ahots bakoitza entzuna izan dadin eta pertsona bakoitza aintzat har dadin.

Pobreziaren eta intolerantziaren aurkako borroka gutako bakoitzarekin hasten da. Gaur, gure ahotsa altxatu nahi dugu sufritzen dutenei elkartasuna adierazteko eta gure konpromisoa berresten dugu gizartean aldaketa-eragile izateko.

ELKARRETARATZEA**URRIAK 17 OSTEGUNA 18.00****IRUÑEKO UDALETXE****PLAZA**